

ZOZKETA!

Gipuzkoako Bertsolari txapelketaren final zortzirenetarako sei sarrera bikoitz zozketan

- Irailaren 29an, igandean, ospatuko da final-zortzirenetako saioa, Bastero Kulturgunean
- Sei bertsolarik lehiatuko dute hurrengo fasera igarotzeko txartela

Andoainen, 24-09-19.- Aurrera doa Gipuzkoako Bertsolari txapelketa, eta final-zortzinereta sartuta gaude honezkero. Saio horietako bat Andoainen jokatu da, irailaren 29an, igandean, Bastero Kulturgunean. Eta zorteko daude bertsozaleak, Andoaingo Udalak sei sarrera bikoitz baititu zozketatzeko.

Zozketan parte hartu ahal izateko Udaleko Instagram eta Facebook kontuetara jo beharko da. Zozketa hurrengo ostegunean, irailaren 26an egingo da, eta, Udala zuzenean jarriko da harremanetan irabazleekin, emandako datu pertsonalen bidez.

Egun horretan sei bertsolari jardungo dira oholtza gainean nor baino nor: Aitor Salegi Martija, Andoni Mujika Izagirre, Eñaut Martikorena Lizaso, June Aiestaran Iparragirre, Endika Igarzabal Murua eta Manex Mujika Amunarriz.

Bertsoaren bitartez, bertsogintzara, inprobisaziora eta euskarara gerturatzera animatu nahi ditu Udalak andoaindarrak.